

## PRENTSA-OHARRA



Ezkerretik eskuinera: Josetxo Soto, artistaren laguntzailea; Silvia Sánchez artista; Itziar Urtasun, Bilboko Udaleko Berdintasun eta Jaietako zinegotzia eta Gobernantza eta Kulturako albokoa; Fernando Pérez, Azkuna Zentroko zuzendaria; eta Ana Moya TECNALIAko Interakzio aurreratuko proiektuen arduraduna

### **Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok Silvia Sánchez artistaren *Eboluzioa inperfekziotik artea, errealitate birtuala eta neurozientzia* proiektua aurkeztu du**

- Erakusketa artistaren jatorrizko 7 lan fisikotan oinarrituta dago, eta errealitate birtualeko 3D betaurreko batzuen bidez hartzen dute bizia
- Mediateka Galerian egongo da ikusgai urriaren 15etik azaroaren 24ra, eta Silvia Sánchezen bisita gidatuen programa batekin osatuko da
- Inperfekzioan eta asimetrian oinarritutako hizkuntza piktoriko batekin, artistak emozioen mundu batean murgiltzera gonbidatzen gaitu
- Proiektuak Silvia Sánchez artistak eta TECNALIA ikerketa aplikatuko eta garapen teknologikoko zentroak garatutako arte eta neurozientziako esperimentu aitzindari baten emaitzak ere erakusten ditu

***Eboluzioa inperfekziotik artea, errealitate birtuala eta neurozientzia***

**Fecha:** 2024ko urriaren 15etik azaroaren 24ra

**Non:** Mediateka Galeria

**Ordua**

**Astelehenetik larunbatera:** 11:00-13:00h / 17:00-19:00h

**Igandea:** 11:00-13:00h

informazio gehiago [prentsa@azkunazentroa.eus](mailto:prentsa@azkunazentroa.eus)  
postan edo +34 648 77 33 73 telefonoan

**Bilbao, 2024ko urriaren 15ean.- Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao,** Bilboko Udaleko Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentroak ***Eboluzioa inperfekziotik artea, errealitate birtuala eta neurozientzia*** aurkeztu du. Ikus-entzunezko proiektu honetan **Silvia Sánchez** artistak artea, teknologia, musika eta emozioak elkartzen ditu.

Prentsaurrekoan, **Itziar Urtasun**, Bilboko Udaleko Berdintasun eta Jaietako zinegotzia eta Gobernantza eta Kulturako albokoa; **Fernando Pérez** Azkuna Zentroko zuzendariak, **Silvia Sánchez** artistak eta **Ana Moya** TECNALIAko Interakzio aurreratuko proiektuen arduradunak hartuko dute parte.

Behatzeko, ezagutzeko eta epaitu gabe ez ezagutzeko leloarekin, **Silvia Sánchezek emakumearen munduaren azterketa psikologikoa egiten du.** Zentzu honetan, erakusketak 7 obra fisiko original ditu erakusketak ardatz; obra horiek bizitza hartzen dute erakusketan, 3d-ko graduako errealitate birtualeko betaurrekoei esker.

**Inperfekzioan eta asimetrian oinarritutako hizkuntza piktorikoa erabiliz, Silvia Sánchezek gonbita egiten digu emozioen munduan murgiltzeko, emakumearen ahalduntzean oinarriturik, "haien alderdi ugarien oparotasuna erakutsiz eta inperfekzioaren edertasunari buruzko galderak sorraraziz",** artistak berak nabarmendu bezala.

### **Proiektua**

***Eboluzioa inperfekziotik artea, errealitate birtuala eta neurozientzia*** proiektuak agerian uzten du arte tradizionala teknologiaren bidez nola eboluzionatzen ari den, eta nola iristen den, bide horretatik, publikoen komunitate orotara, baita gazteenetara ere.

Bere lan prozesu eta kezka guztiak ulertu ahal izateko, **bisita gidatuen programa bat antolatuta da**, doakoa eta [izena emanda](#), artistak Mediateka Galerian eskainiko duena.

**Lan hau artearen munduan bitarteko digitalen erabilerari buruzko eztabaida une batean kokatzen da.** Alde horretatik, Silvia Sánchezen ustez, arte tradizionala eta digitala "baliozkoak dira, elkar bizi eta aberastuz, hizkuntza publiko bakoitzera egokituz bere obraren mezua egokiago transmititu ahal izateko".

Horrez gain, Silvia Sánchezek Ikerketa eta Garapen Teknologikorako **TECNALIA Zentroarekin batera garatutako mundu mailako arte- eta neurozientzia esperimentu aitzindari baten emaitzak erakusten ditu**, arteak gizartean duen eragin positiboa berresten dutenak.



Silvia Sánchez artistaren proiektuaren irudi bat Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon

Ikerketak baieztatzen duenez, artistaren murgiltze-esperientzia ikusterakoan ikusleen erantzun psikofisiologikoak eta egoera emozionalak erakusten dute arteak emozioak leherrarazteko eta ikusleen hasierako egoera emozionala aldatzeko duen gaitasuna.

**Ana Moyak** azaltzen duen moduan, "jasotako datuen analisiak adierazten du pertsonen erantzun indibidualak bagaje emozional pertsonalaren eragina duela, baina baita generoaren eta adinaren eragina ere. Murgiltze-esperientziaren protagonista emozioen eta emakumeen ahalduentzaren munduan murgiltzen zaituen emakume bat da, emakumezkoen publikoan enpatia eta gizonezkoenaren zati batean tentsioa sortzen dituen. Adinaren arabera, adinak emozio gogoetatsuagoak agertzea sustatzen duela diote datuek".

### **Silvia Sánchez**

Silvia Sánchezek duela 15 urte erabaki zuen Zuzenbidearen arloa alde batera utzi eta profesionalki artean jardutea. Espainia, Portugal, Suitza, Mexiko eta Emirerri Batuak ditu bizitoki, eta herrialde horietan erakutsi ohi du bere obra. Kultura horietan guztietan, norberaren nahiz besteren giza emozioen ikusle anonimo gisa dihardu, emozioak baliatzen baititu, hain zuzen ere, bere obrarako lehengai gisa.

Gaur egun, Donostian bizi da, eta galeria bat dauka, silvia & the spyglass, non erakusten baitu bere obra fisikoa eta digitala.

### **Bisita gidatuak**

#### **Silvia Sánchezen eskutik**

Urriak 15, asteartea

Urriak 30, asteazkena

Azaroak 20, asteazkena

Orduategia: 18

Edukiera: gutxienez 3 pertsona, gehienez 15 pertsona

[Izen emateak](#)

### **Informazio gehiago, irudiak eta elkarrizketak**

---

[prentsa@azkunazentroa.eus](mailto:prentsa@azkunazentroa.eus)

Tels. +34 648 773 373